

## Lehen asteburua: ni kontent

“BA... EZ HAIN GAIZKI, AIZU!”. Igan-deko (20) Sail Ofizialeko azken pelikula ikusi ondoren ari naiz hizketan lagun batekin. Esana nion aurten Veneziaiko Mostran pasatu dituzten pelikulen aldean, *a priori* ahula iruditzen zitzaidala Donostiako Zinemaldian ikusi behar genuena. Baina aurreneko asteburuko filmek hein batean iritzia aldatu didate.

Festibala hasi zen Atom Egoyanen *Chloerekin*: Julianne Moore eta Liam Neeson jelsokorkeriari buruzko istorio batean, Amanda Seyfriedek tentatuta. Ez zen hasiera txarra izan. Distiratik urrun, dena dela.

Larunbateko hirurek konbentzitu ninduten gehien. Gosaria ezarrarian ikusitako *Le refuge*-ek (François Ozon zuzendari) melodrama mallo-ebasle bat izateko aukera guztiak zituen –heroinazalea da protagonista, mutila hilko zaio, haurdun geratuko da...–;

baina pelikularen mekanikak, kontuan hartzeko moduko emaitza sortu du.

Irandik *Keshtzar haye sepid* (irudian) Mohammad Rasoulof zuzendariarena. Azken bi urteetan Makhmalbaf ahizpek ekarri dituzten filmen ildoan, modu alegorikoan irakurri behar da. Mundu globalizatuko botere-harremenen errepresentazio sendo honek, Irango zinema sasoiaren dagoela erakutsi zigun oster.

Juan José Campanellak *El secreto de sus ojos*-ekin trebe nahastu ditu amodio istorioa eta detektibe generoa, umore argentinarraren printzak tartekatuz.

Asteburuko ahulena, nire ustez, Christophe Honoréren *Making plans for Lena*. Eta lagunari esan diot: “Ikusiko dugun txarrena hori izango bada, ni kontent”.

GORKA BEREZIARTUA



SAIL OFIZIALA



## Historia lezioak pantaila handian

“PRIORA TEMPORA, meliora fuere quam nunc sunt” leloari jarraiki, I. Mundu Gerra aurreko Alemaniara, II. Mundu Gerrako Frantzia okupatura, duela 40 urteko Woodstock jaialdira edota 80etako New Yorkera eraman gaituzte Michael Haneke, Quentin Tarantino, Ang Lee eta Lee Daniels zuzendariek. Zine komertzialean ere hainbatetan errepikatzen den joera da: badirudi zinemagileek nahiago dituztela iraganeko istorioak. Historiarekin jolastu egiten dute Ang Leek eta Tarantinok –azken honen proposamen dibertigarriak asmatu eta aldatu egiten ditu gertakariak, gainera–. Hanekek garai bateko ultrakatolizismoa eta errepresioa salatzen ditu, eta Daniels 80ko hamarkadan beltzek –zer esanik ez Harlem ghettoke beltzek– zituzten zailtasunetaz mintzo da. Ondo dator zenbaitetan historiara jotzea, erantzunak –batzuetan galde-

rak– bilatzeko. Arazoa da oker ematen denean, edo manikeismo, klixe eta eskema sinplifikatuek baliatzen direnean, gaiztoak oso gaiztoak zirelako eta garaileak oso onak.

Horregatik, egungo eredu, pentsamolde eta gertakarien inguruan eztabaidatzen duen zinema mantentzea garrantzitsua da, zailagoa delako ziria sartzea, eta inguruko gertakariak egungo errealitatea ulertzen laguntzen digutelako. Halakorik ikusi dugu Zabaltegi sailean: *Huit fois debout* filmak, gaur-gaurko gaiak jorratu ditu Xabi Moliak: langabezia, krisia, familia eredu berriak, paperik gabeko etorkinak. Ziurrenik, Hollywood ere ariko da krisiari buruzko zer edo zer prestatzen, baina bere estiloan: Madoffen bizitzari buruzko thriller-komedia-drama. Zerbait jokatu nahi?

MIKEL GARCIA



ZABALTEGI

